

MANTEN programa. Enplegua mantentzea

COVID19aren pandemiak sortutako krisiaren ondorioz kontratazioarako eta enplegua mantentzeko dirulaguntzak ematea.

Helburua	Langileen enpleguari eustea, Bizkaiko mikroenpresetako aldi baterako kontratuen bidez.
Erakunde onuradunak	<p>Ondoren azalduko diren baldintzak betetzen dituzten Bizkaiko enpresak (haien forma juridikoa gorabehera), enpresaburu indibidualak eta profesionalak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak, bai eta irabazi-asmorik gabeko elkarteak, fundazioak eta beste erakunde batzuk ere:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Bizkaian izatea egoitza soziala eta fiskala, baita lantokia ere. 2.- Gehienez ere 10 langile edukitzea plantillan. 3.- Aurreko betekizun horiek betetzen ez dituzten enpresek ezin dute % 25 baino gehiagoko partaidetza izan erakunde onuradunean, zuzenean edo zeharka. 4.- Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. <p>Honako hauek ezin daitezke dirulaguntzen onuradun izan: administrazioaren edozein esparrutan (tokiko administrazioan, foralean, autonomia erkidegokoan edo zentralean) administrazioari lotuta dauden edo haren mendekoak diren erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta irabazi-asmorik gabeko elkarte edo erakundeak, aldi baterako laneko enpresak, eta aipatutako erakundeei lotutako edo haien menpekoak diren beste erakunde pribatu batzuk.</p>
Diruz lagun daitekeen egitatea	<ul style="list-style-type: none"> • Gutxieneko 6 hilabeteko kontratuen luzapenak edo handitzeak • Langileen aldi baterako kontratuak mugagabeko kontratu bihurtzeak. • Luzapenak, handitzeak edo bihurtzeak formalizatzeko epea: 2020ko martxoaren 14tik 2020ko urriaren 31ra.
Kontratuen baldintzak:	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpo geratzen dira gutxieneko sei hilabeteko iraupena jasota ez daukaten kontratuen luzapenak edo handitzeak. • Langilea ez da egon behar erakunde eskatzaileak kontratatuta 18 hilabete baino gehiagoz 24 hilabeteko epean, kontratua luzatu, zabaldu edo bihurtu aurretik. Dirulaguntza ez da aplikatuko kasu hauetan: prestakuntza-kontratuetan; txanda- eta bitarteko-kontratuetan; enplegu-prestakuntza programa publikoen esparruan egindako aldi baterako kontratuetan; eta behar bezala erregistratutako laneratze-enpresek erabilitako aldi baterako kontratuen kasuan, haien helburua laneratze-ibilbide pertsonalizatu baten funtseko zat jotzen denean. • Kontratuen luzapenek, handitzeek edo bihurtzeek gutxienez eutsi egin behar diete aldi baterako aurreko kontratuak zituen ordainsarien eta jardunaldiaren arloko baldintza berberei. • Kontratuen luzapenek, handitzeek edo bihurtzeek lanaldi osokoak edo partzialekoak izan behar dute; baina, partzialetan, ezarritako ohiko lanaldiaren % 50 gutxienez izan behar du lanaldiak, kontratuaren hasiera-egunetik haren indarraldia amaitu arte. • Kontratututako pertsonak Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatutako lantokietan egin beharko dituzte beren zerbitzuak
Dirulaguntzaren zenbatekoa	<ul style="list-style-type: none"> • Aldi baterako kontratuen gutxieneko 6 hilabeteko luzapen eta handitzeen kasuan, zenbatekoa 2.500 euro izango da, langilea 45 urtetik beherako gizona bada, eta 3.000 euro, langilea emakumea edo 45 urtetik gorako gizona bada. • Aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzeen kasuan, 3. 500 euro izango da. • Muga erakunde eskatzaile bakoitzeko: 9.000,00 euro
Dirulaguntzak emateko erregimena eta araudia	<p>Bizkaiko Foru Aldundiaren 57/2020 Foru Dekretua, ekainaren 16(e)koa, zeinaren bidez COVID19aren pandemiak sortutako krisiaren ondorioz ezartzen baitira kontratazioarako eta enplegua mantentzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia. Norgehiagokarik gabeko prozeduraren bidez emango dira dirulaguntzak.</p>
Epeak	<p><u>Ekintzak egitea:</u> luzapenak, handitzeak edo bihurtzeak 2020ko martxoaren 14tik urriaren 31ra bitartean formalizatu behar dira.</p> <p>Eskabideak aurkezteko epea eta era: eskabideak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 18ko 9:00etan irekiko da, eta 2020ko azaroaren 13ko 13:30ean itxiko.</p> <p>Eskabidea eta berari dagokion dokumentazioa Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtualean aurkeztu beharko dira, www.bizkaia.eus webguneko «Izapideak» ataletik sartuta. Horretarako, sinadura elektronikoa beharko da (Izenpe, NAN elektronikoa, sinadura elektronikoa aurreratua, B@KQ...). Hala ere, Bizkaibai txartela izanez gero, bulego birtualean sartzeko erabili ahal izango da.</p>